# anboto

TOKIKOM

2010eko azaroaren 5a
9. urtea - 393 zk.
durangaldeko astekaria
www.anboto.org

**Herririk Herri** |2|
Azterlanek 500.000 euro kudeatuko ditu enpresen lehiakortasuna indartu guran

**Amalurra** |18|
Argazki Rallya eta irteera antolatu ditu Urkiolako Parke Naturalak azarorako



**Berbaz** |8|
Juan Garibi: "Bankuek ez dute nekazaritzan inbertitu gura. Fiarek bai""

# "Saturrarango kartzelako egia gizarteratzen ahalegindu gara"

> Durangoko Baleuko ekoiztetxeak ekoiztutako 'Izarren Argia' filma Durangaldean ikusgai dugu egunotan

> Memoria historikoa berreskuratzea helburu duen pelikulan parte hartu du Asier Bilbao produkzio arduradunak

11




New Yorkeko Spanish Cinema Now-en erakutsiko dute filma. Kepa Aginako

## Fumbarriko langileek manifestazioa deitu dute zapaturako

**Durango•** Fumbarri enpresako langileek 20 egun daramatzate greba mugagabean. Manifestazioa deitu dute zapaturako, 13:00etan, Andra Maritik irtenda. Besteak beste, 2011 amaitu arte enplegua bermatzea eta kaleratze traumatikoak alboratzea eskatzen diote enpresari. 3

## Herri ereduaren gainean hausnartzen eta iritzia emateten

**Abadiño•** Hirigintza beste ikuspegi batetik aztertzeko helburuagaz udaberrian burutu zuten tailerraren jarraipen legez, erakusketak prestatu dituzte, azaroaren 19ra arte, herriko kultur etxeetan. Erakusketa hauetan euren iritziak adierazi ditzakete herritarrek. 7

• **Iurreta**
Iurretako Institutuaren eta Armeria Eskolaren arteko hitzarmena 6

• **Elorrio**
Astelehenean Txantxibiri kalea konpontzen hasiko dira 2

## Mikel Zabalzaren ibilerak, Elorrioko Mendi Astean

**KIROLA•** Datorren astelehenetik ostiralera, egunero, 19:30ean, argazkiz eta ikus-entzunezkoz hornitutako hitzaldiak antolatu ditu Erdella mendizale taldeak, Elorrion, Mendi Astearen barruan. Eguaztenean Mikel Zabalzak Karakorumen egindako igoerak izango ditu mintzagai. Aitor Casado, Koldo Zubimendi, Iker Iriondo, Urdin Ugarte eta Eider Elizeguik ere berbaldiak eskainiko dituzte. 18



# HERRIRIK HERRI

DURANGALDEA

## 500.000 euro industria sektorea lehiakorrago egiteko

Estatuko aurrekontuak onartzeko EAJ eta PSOEren arteko akordioak ahalbidetuko du inbertsio hori

Aurtengo Estatuko aurrekontuak aurrera ateratzeko EAJk PSOEgaz Madrilen lotutako akordioaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan 111 miloi euroko inbertsioa egingo dute, batez ere, teknologia eta zientzia arloan. EAJk adostutako kopuru horretatik 500.000 euro Durangaldeko industriaren lehiakortasuna berpiztera eta sustatzera bideratuko dituzte.

Durangaldeko Enpresarien Elkarteak sustatu du 'Lehiakortasun Poloa' deitu dioten proiektua, eta berau garatzera bideratutako dirua Azterlan zentro teknologikoak kudeatuko du. Eskualdeko industriak "birmoldalketa" behar duela azaldu du Julian Izaga Azterlaneko berrikuntza eta teknologia zuzendariak, eta horretarako "produktua, merkatua eta teknologia" modu egokian bateratu behar direla. Egitasmoa, batez ere, industriaren arloko enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago; Mikropymeak. Hiru modutako laguntza eskainiko dute: produktu eta merkatu berrien bilaketa eta teknologia erabilgarrien txertaketa.

**Azterlan zentroak kudeatuko du egitasmoa eta, batez ere, industria arloko enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago**

### BPGaren %50, industriatik

Azterlanen eraikinean egindako prentsaurrekoan Durangaldeko EAJko alkate eta zerrendaburu gehienak eta Bizkaia Buru Batzarreko lehendakari Andoni Ortuzar batu ziren. Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatearen esanetan, "eskualdeko Barne Produktu Gordinaren %50a industria sektoretik dator, eta jarduera enpresa txikietan eta automozioaren inguruan kontzentratzen da gehienbat". Industria jardueraren "lerro bakar" horretatik irten eta, lehikortasunagaz batera, dibertsifikazioaren beharra azaldu zuen hiru helburu lortu guran: "Ekoizpen lerro berriak aztertzea, merkatu berriak bilatzea eta, posible bada, enpresa berriak sortzea". Ortuzarrek Durangaldearen "pisu demografiko eta industriala" gogoratu eta egitasmoak "produktu eta zerbitzu berriak eskaintzen" lagunduko duela azaldu zuen. ■ J.D.



Eskualdeko EAJko alkate eta zerrendaburu gehienak eta Andoni Ortuzar batu ziren.

**Produktu eta merkatu berriak bilatzen eta teknologia berriak txertatzen lagunduko diete**

ELORRIO

## Astelehenean hasiko dira Txantxibiri kalea eraberritzeko lanetan

Ondorioz, San Juan kaleko noranzkoa aldatu eta handik bideratuko dute Berrio-Otxoako trafikoa

Datorren astelehenean hasiko dituzte Txantxibiri deitzen dioten kaleko lanak. Lasuen enpresak 30 asteko exekuzio epea du Zumelegi Egoitzatik Otsa kale kantoirainoko urbanizazio eta peatonalizazio-lanak egiteko; bien bitartean inguru horretako trafikoak aldaketak jasango ditu.

Herriko plazatik Berri-Otxoa kalean gora doanak ezingo du obrak egiten ari diren zonaldetik pasatu, eta trafikoa San Juan kaletik bideratuko dute. Berez, San Juan kalea Berrio-Otxoara sartzeko erabili izan da; beraz, lanek dirauten bitartean noranzkoa aldatu egingo diote eta Berrio-Otxoatik irteteko bakarrik balioko du. Era berean, San Juan kalera sartu gura duenak, zeharbide bat erabili beharko du Ibaiondo eta Azpikoerrota kaleetatik. Orain norabide bikoitza duten kale horiek norabide bakarrekoak izango dira 30 astean. Aste honetan galtzaden eta aparkalekuen seinaleztapena eta pintaketa egingo dute.

Era berean, obrei eta trafiko aldaketei buruz informatzeko, Udalak bilera bat egingo du gaur, 18:00etan, udaletxeko udalbatzar aretoan. ■ J.D.

**Lasuen enpresak gauzatuko dituen lanek 30 asteko exekuzio epea daukate**

**San Juanera sartzeko Ibaiondo eta Azpikoerrota kaleetako zeharbidea hartu beharko da**

## Tabernetako terrazen tasa %25 igotzea proposatu dute

Ordenantza fiskalen eztabaidan azaldu zutenez, inguruko herrietako tasen "oso behetik" zegoen

Datorren urterako ordenantza fiskalek onartzeko adostasuna lortu dute batzordean. EAJk Gobernu Taldearen proposamenari baiezko botoa emango diela aurreratu dio Anbotori. Oro har, %1,5eko igoera proposatuko dute —KPIaren, kontsumo prezioen indizearen azpitik—. Hala ere, tabernetako terrazen tasa %25 igotzea proposatu zuten; ibilgailuena %3 eta zaborrena %5.

Niko Moreno alkateak terrazen tasaren igoerari buruz azaldu zuenez, Durangaldeko gainerako herrien "oso behetik" zegoen. Igoeraren aurretik, 10 mahaitik gora —launa aulkigaz— ipini gura zuenak urteko 29 euro ordaintzen zuen mahaiko. Morenoren arabera, "Durangon 30 euro eta Arrasaten 93 euro kobratzen dituzte metro karratuko". Zaborren tasaren igoera zerbitzu horrek sortzen duen defizitean oinarritu dute. Azkenik, automobilen tasaren igoeran zein %1,5eko igoera orokorrean "oreka finantzarioa" bilatu gura izan dutela azaldu du. Horrela, diru-sarrera osoak 7,2 milioitan kalkulatu dituzte eta horietatik hiru milioi zerga eta tasetatik etorriko dira.

EAJko zinegotzi Ana Otaduiren esanetan, "baietz bozkatuko dugu diru-sarrerak eta gastuak doitu egin behar direlako, baina aurrekontuetan gastuak zehazterako orduan ere zorrotz jokatuko dugu". ■ J.D.

**Ibilgailuen gaineko tasa %3 igotzea proposatu dute, eta zaborrena, berriz, %5**

GARAI

## Konponketak Laixiarrera doan pista baten

Garaiko Udalak Laixiar baso ingurura doan pista bat konpontzeko asmoa agertu du. Oraindik lanon adjudikaziorik ere egin ez den arren, aste gutxiren buruan lanak burututa izatea aurreikusten dute, aste honetan jakitera eman dutenez.

**Baso Hobekuntza Fondoko dirua erabiliko dute: 42.584 eurokoa da aurrekontua**

Baso Hobekuntza Fondoko dirua erabiliko dute horretarako: 42.584 eurokoa da egitasmoaren aurrekontua. Lanak gauzatzeko lehian sartuko dira enpresak, eta datorren astera arteko epea izango dute. Horren ondoren emango du adjudikazioa udalak, eta lanak "ahal denik eta arinen" hastea da euren helburua, "segurutik azaroan bertan".

Modu horretara, obra hau urtea amaitu baino lehenago egitea gura du udalak. ■ M.O.

DURANGO

# Tren geltoki berria 2011 amaitu aurretik egitea itxaroten dute

## Lebarioko kotxe-tokiarentzat data bera iragarri du garraio eta lan sailburuorde Ernesto Gascok

Datorren urtean martxan ipintzen hasiko diren tren berrien gaineko erakusketa inauguratu zuten, joan zen barikuan, Durangon —Ezkurdin dago erakusketa— eta aurkezpen horretan Ernesto Gasco Eusko Jaurlaritzako garraio eta herri lan sailburuordeak Durangoko trenbidearen lurperatze lanen gaineko galderei ere erantzun zien. Tren geltoki berriari buruz, "datak tentuz" eman behar direla adierazi zuen: "Baina asmoa 2011 amaitu aurretik geltokia prest egotea da". Era berean, Lebarioko tailerrak ere "2011 amaierarako" prest izan gura dituzte.

Bere sasoian Iñaki Arriola garraio sailburuak esandakoa errepikatuz, Euskotrenen egoitza Durangon egiteko proiektua "ez dago lehentasunen artean", Gaskoren esanetan. Gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita garrantzitsuagoa da, dioenez, "trena ahalik arinen lurperatzea" edo dirua "bestelako zerbitzu publikoetan inbertitzea". Proiektua gauzatuko ote den galdetuta, zeharka erantzun zuen: "Orain egoitza bat dugu Atxurin. Egoitza berri baten beharrik baldin badago, eta behar bada egin beharko da, beharbada Durangon egon beharko litzateke. Baina orain 70 milioi euro horretan inbertitzea ez dago lehentasunen artean. Metro karratuak 10.000 euro balio duen bulegorik ez dugu orain behar".

**Euskotrenen egoitza ez dagoela lehentasunen artean berretsi du sailburuordeak**

**"Eraikin berria behar baldin balitz, beharbada Durangon egin beharko litzateke"**

Lurperatze lanen amaiera datarik ez zuen zehaztu. "Denbora gehiago" hartuko dutela adierazi du "lan konplikatuagoa delako". Dena dela, lan guztiak martxan daudela adierazi zuen, eta obren exekuzio maila "%70etik gorakoa" dela. ■ J.D.



Durangoko alkatea eta PSE-EEko zinegotziak, Gaskogaz.

# Fumbarriko beharginek kalera zabaldu dute euren protesta

## Martitzenean manifestazioan irten ziren Durangoko kaleetan; bihar, 13:00etan, Andra Maritik irtengo den beste manifestazio bat deitu dute




Martitzenean Durangoko kaleetan zehar manifestatu ziren Fumbarriko langileak.

Greba mugagabean hogei egun daramatzaten "langileen egoera eta enpresako bazkideek gurekiko duten jarrera" salatzeko manifestazioa egin zuten Fumbarriko langileek, martitzen eguerdian, Durangoko kaleetan. Horrez gainera, hurrengo egunean kazola-joaldia egin zuten. Bihar jarraituko dute protesta ekitaldiekin; 13:00etan beste manifestazio bat abiatuko dute Andra Maritik.

LAB sindikatuak prentsa ohar batean salatu duenez, "negoziazio mahaira deitu gaituzten aldi bakarrean, soldatak izozteko eta zapatuetan zein opor egunetan lan egiteko proposamena egin digute, besteak beste, eta, gainera, ez dute bermatu langilerik kaleratuko ez dutenik".

LABek puntu bitan laburbildu ditu langileen eskakizunak: "2011 amaitu arte enplegua bermatu dezatela, kaleratze traumatikoak alboratuz; eta 2009ko abenduan idatziz hartutako konpromisoari jarraituz, bigarren enplegu erregulazioaren baldintzak negoziatu ditzatela".

**Fumbarriko langileek 20 egun daramatzate greba mugagabean**

**Besteak beste, 2011 amaitu arte enplegua bermatzea eta kaleratze traumatikoak alboratzea eskatzen dute**

Diotenez, administrazio kontseiluak eta zuzendaritzak bigarren enplegu erregulazioa eskatu zutenean, "emandako hitza hautsiz, ezelako baldintzarik negoziatzeari uko egin zioten". Gainera, irailaren 26an, bigarren enplegu erregulazioa hasteagaz batera, "langile bat kaleratu eta kaleratze gehiagogaz mehatxatu gintuzten". Orduan erabaki zuten Fumbarri enpresako langileek greba mugagabeari ekitea. ■ J.D.

# Durangoko ezkutuaren gaineko liburua argitara

Jesus Iturraldek Durangoko ezkutuaren gaineko liburua kaleratu du asteon. 1999an Durangoko irudi korporatiboa aldatu zuten, eta ezkutuagaz "zerikusi gutxi" duenez, 1423-25 urteen artean diseinatutako "benetako ezkutuaren" defentsa egin gura izan du.

Liburuan ezkutuaren ikerketa historikoa egin eta udalak azken 200 urteetan erabilitako tinbre eta menbreteen katalogoa ere jaso du. Liburuaren salmentekin batutako dirua eskualdeko gobernuz kanpoko erakundeetan banatuko du. ■ J.D.









DURANGO

## Durangaldeko egoitza berria inauguratuko du bihar Aralarrek

Aralar alderdiak zapatu eguerdian Durangaldeko egoitza inauguratuko duela jakinarazi du. Bihartik aurrera, Durangoko Artekale kaleko 23. zenbakian izango du bere egoitza Aralarrek.

Herritar guztiei zabalik egongo den ekitaldiagaz inauguratuko dute lokala. Bihar, 12:30ean, egoitza berriaren aurkezpena egingo du Dani Maeztu Durangoko Udaleko zinegotzi eta Gasteizko legebiltzarkideak.

Ondoren, 13:00etan, ekitaldi politikoa eskainiko dute Aintzane Ezenarro Aralarreko bozeramaileak, Mikel Anderez Durangaldeko Iratzarriko kideak eta Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzaileak. Azkenik, ekitaldiari luntx baten bitartez emango diote amaiera. ■ J.D.

**Patxi Zabaleta, Aintzane Ezenarro, Mikel Anderez eta Dani Maeztuk parte hartuko dute inaugurazio ekitaldian**

# Erkidegoen Jaialdia ospatuko dute gaurtik domekara

Hainbat herrialdetako kultura ezagutaraziko dute

Aurreko aldietan legez, kulturak batzea, elkarrekin hartu-emanetan jartzea du helburu gaurtik domekara Landako Erakustazokan garatuko den IV. Erkidegoen Jaialdiak. Aurten Euskadi, Andaluzia, Extremadura, Palentzia eta Nazioarteko Komunitatearen standak ipini dituzte. Azken hori, Durangoko etorkinen elkarteek kudeatuta dago.

**Extremadura, Palentzia eta nazioarteko guneak bisitatu ahal izango dira**

Euskadiko gunean labeldun produktuak izango dira protagonista. Euskal Okela eta Euskal Baserriko Oilaskoa dastatzeko 1.000 pintxo banatuko dituzte euro batean. Batutako dirua JAED eta Caritas Tabirari emango diote. Euskal musika eta dantzak ere ikusgai izango dira.

Nazioarteko erkidegoaren standean musika eta dantza tradizionalak, haurrentzako tailerrak eta, besteak beste, Senegal, Mali, Brasil eta Kolonbiako janaria dastatzeko aukera eskainiko dute. Andaluzia, Extremadura eta Palentziako guneetan ere nork bere produktuak eta folklorea erakutsiko ditu.

Gune horiez gainera, ikuskizunei bideratutako beste bat ere egongo da. Gaur, 21:00etan, Gasteizko Jose Uruñuela udal dantza kontserbatorioak emanaldia eskainiko du. Bihar, 21:30ean, Azahara taldeak eta, ondoren, Xabier Aburruzagak kontzertuak eskainiko dituzte. Bestalde, bihar 13:00etan, Andra Mariko elizpean, Palentziako Diputazioko dantzataldearen kontzertuagaz gozatzeko aukera eskainiko dute. ■ J.D.



Aurten laugarren aldia egingo dute kultur topaketek.

# Juan Mari Aburto, Zabaltzen-Sartuk antolatutako hitzaldian

Gizarteratzearen eta ekonomia sozialaren gaineko hitzaldia antolatu zuten atzo Elkartegian

Txukunberri gizarteratze enpresak eta Durangoko Udalak hitzarmena sinatu zuten uztailean, bederatzi emakume lan munduan txertatzeko. Emakume horiek udal igerilekuko kafetegian dabiltza zerbitzua ematen. Ildo horretatik, enpresaren sustatzaile den Zabaltzen-Sartuk *Lankidetza publiko eta pribatua gizarteratze enpresen promoziorako eta garapen lokalerako* izeneko jardunaldia antolatu zuen, atzo, Durangoko Elkartegian.

Mahai-inguruan Juan Mari Aburto gizarte ekintzako foru diputatuak, Pedro Sanchez Jaurlaritzako gizarteratze sozialeko ordezkariak, Carlos Askunze REASeko gerenteak, Loli Martin Durangoko Zabaltzen-Sartu elkarteko zuzendariak eta Aitziber Irigoras alkateak parte hartu zuten.

Gonbidatu horiekin batera, gizarte eta lan arloko zerbitzuan lan egiten duten beste hainbat eragile eta ordezkari ere batu zituen jardunaldiak. ■ J.D.

**Carlos Askunze REASeko gerentea ere gonbidatu zuten atzoko mahai-ingurura**



Durangoko elkartegian egin zuten mahai-ingurua.

## Maristak ikastetxea, Kalitatearen Europear Astean

Datorren martitzenean, Maristak-Durango ikastetxeak eta Andoaingo La Salle Berrozpek Kalitatearen Europear Astean parte hartuko dute, pertsonen kudeaketarako jardunbide egokien gainean. Ikastetxe biek, *Investors in People* urrezko ziurtagiria jaso dutenek, Lakuan egingo duten ekintza-tailerra abian ipiniko dute eta Kalitatearen Euskal Agentziak Euskadi mailan zabalduko du.

**Datorren martitzenean parte hartuko dute Lakuan ospatuko den ekitaldian**

**Maristak-Durango ikastetxeak 'Investor in People' urrezko ziurtagiria dauka**

*Investors in People* arauak erakunde bateko pertsonen kudeaketan praktika honetarako mailak finkatzen ditu, horretarako lau printzipio oinarritzat hartuta: konpromisoa, planifikazioa, ekintza eta ebaluazioa.

Arauak pausoz pauso jarraitzeak, "pertsonak eguneroko lanean ahalegintzen, euren lanaz gozatzen, ahal duten gehiena inplikatzen eta euren erakundearen babesa eta maitasuna sentitzen laguntzen du", Maristak-Durango ikastetxeko ordezkariek adierazi dutenez. ■ J.D.

OTXANDIO

## Oro har, %2 igoko dituzte 2011ko tasak eta zergak

"Gaitasun fiskala ez galtzeko" erabaki dute ordenantza fiskalari KPIaren igoera aplikatzea

Joan zen asteko udalbatzarrean datorren urteko ordenantza fiskalak aho batez onartu zituzten gobernu taldeak eta EAJk. Aritz Otxandiano alkateak adierazi duenez, zergak eta tasak %2 edo %2,5 igoko dituzte. Estolderiaren tasa, esaterako, %2,5 igoko dute.

Igoera orokor horretatik zerga bi bakarrik geratuko dira salbu: ondasun higiezinen gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga. Bi zerga horiek lehenago zeudenean utziko dituzte. Izan ere, zerga horiei kontsumo prezioen indizea aplikatzea konplikatua da; bakoitzaren balore katastralaren arabera portzentaia bat edo bestea erabiltzen da bi zerga horien kasuan.

Udal arduradunek adierazi dutenez, gobernu taldeko ordenantza fiskalen proposamenak ez du alegaziorik edo zuzenketarik jaso aurten.

Otxandiano alkateak tasak eta zergak ez izozteko erabakia zergatik hartu duten arrazoitu du: "Ez dugu gaitasun fiskala galdu gura. Kontsumo prezioen indizeari jarraituz bizimodua garestitzen doan moduan, udaleko jarduerak ere garestitu egiten dira, eta kontuetan oreka mantentzea gura izan dugu". ■ J.D.

**Ordenantza fiskalak %2 edo %2,5 igotzea adostu zuten, aho batez, udalbatzarrean**

**Ondasun higiezin gaineko eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergak ez dira igoko**

## Gure Nagusien Eguna ospatuko dute Pasealekun

Domekan Gure Nagusien Eguna ospatuko dute, jubilatuen Pasealeku elkartean. Urteroko ohiturari eutsiz, eguerdian bazkaritara batuko dira elkartearen egoitzan. Bazkalostean hainbat ekitaldi burutuko dituzte. Esaterako, azkeneko asteetan jokatu duten briska eta mus txapelketako sari banaketa egingo dute.

Horren ondoren, elkarteko nagusi biri oroigarri bana emango diete. Aurten Francisco Lopez eta Soledad Elguezabalek jasoko dute oroigarria.

Bestalde, oraintsu jokatutako kale margo lehiaketa Julio Gomez Mena leioarrak irabazi du. Herriguneko Artekale pintatu du koadroan. ■ J.D.


ALMACENES
ARRASATE
TIEN 21
Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO
Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13
1000 b/min 6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
295 €
1200 b/min 7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-7712S
348 € FAGOR
1200 b/min 7 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE 24472FEP
450 € BOSCH
1200 b/min 7 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-72557
485 € AEG
1200 b/min 8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WD-12811MD
390 € LG
1200 b/min 8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-2812
455 € FAGOR
1200 b/min 8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAP-24361
525 € BOSCH
B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA T-56840-L
425 € AEG
A+ Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA FSB-570B
365 € FAGOR
A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA
375 € AEG
LABE ETA BITROZERAMIKA
2000 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGN-39A77
740 € BOSCH
200 x 60 x 60
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ-4825X
682 € FAGOR
A+ Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M
450 € AEG
A Sailkapen energetikoa
PLAKA IF-3S/AX
ETA L BEA 6H-860AX
FAGOR
Lehen 1.209 €
Orain 950 €
Eta gainera
eraman ezazu FAGORreko sukaldeko tresneria hau opari
Opari
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA
MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA
GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU
+dendak-EKO "DUKANGO" TXARTELA ERABILGARRI

IURRETA

# Armeria Eskolagaz hitzarmena sinatu du Iurreta Institutuak

Beste ikastetxe batzuekin batera Laneki lanbide heziketarako hiztegi teknikoa on line prestatzen parte hartu du Iurretako institutuak

Eibarko Armeria Eskolagaz beharrean jarduteko hitzarmena sinatu du Iurreta Institutuak. Etengabeko prestakuntzarako eta lanerako ikastaroetan eskaintza batera egitea adostu dute Armeria Eskolak eta Iurretako institutuak.

**Eibarko eta Iurretako ikastetxeek 70 ikastaro inguru antolatu dituzte elkarlanean**

Ikasturte honetarako, etengabeko prestakuntzarako eta lanbide prestakuntzarako 70 ikastaro inguru prestatu dituzte bi ikastetxeek. Arlo ugari landuko dituzte ikastaro horietan; elektrizitatea, elektronika, informatika eta telekomunikabideak, fabrikazio elektromekanikoa eta administrazio gaiak, esaterako. Urriaren 22an sinatu zuten hitzarmena eta, azaldu dutenez, euren helburua "lanbide heziketako eskaintza hobetzeko indarrak batzea" da.

**Hiztegia on line**

Laneki lanbide heziketa sustatzeko elkarteak euskarazko lehen on line hiztegi teknikoa sortu du, eta Iurreta Institutuak proiektuan parte hartu du. Hamar urteko beharra eduki du hiztegiak eta honezkero *www.jakinbai.com* webgunean ikusi daiteke .

**Laneki hiztegiak lanbide heziketagaz lotutako 5.600 berba baino gehiago dakar**

Lanbide heziketako terminologiako 5.600 kontzeptu baino gehiago dauzka hiztegiak eta, proiektuaren bultzatzaileek azaldu dutenez, tresnaren helburua "lanbide heziketari buruzko informazioa gizartearen eta edozein erabiltzaileren esku jartzea da". Euskararen garapenaren aldeko beharra egin gura izan dutela nabarmendu dute hiztegian parte hartu duten eragileek.

Hiztegia Laneki elkartearen proiektua da, eta bertan parte hartu du, besteak beste, Ikaslan Bizkaia lanbide heziketako ikastetxe publikoen elkarteak. Bertako kidea da Iurreta Institutua. ■ A.U.



Iurreta Institutuko eta Armeria Eskolako ordezkariak, hitzarmena sinatu zuten egunean.

BERRIZ

## Internet ikastaroak doan, azaroan eta abenduan

Berrizko Kultur Etxeko KZgunean doako Internet ikastaroak eskainiko dituzte azaroan eta abenduan. Oinarrizko ikastaroaz gainera, Google Maps, Twitter eta Blogger ikastaro bereziak izango dira aukeran, udaletik adierazi dutenez. Beraz, Internet ezagutu nahiz bertan sakontzeko balioko dute ikastarook.

**Interneteko mundua ezagutu nahiz bertan sakontzeko balioko dute ikastaroek**

Oinarrizko ikastaroa 10 ordutan emango da, eta bi hizkuntzatan –euskaraz eta gazteleraz– jaso ahal izango dute interesatuek; 09:00etan hasiko dira. Ikastaro bereziak, berriz, ordu biko jardunaldiak izango dira.

Oinarrizkoa, hilaren 8tik 12ra eta 13tik 17ra garatuko da euskaraz; gazteleraz, azaroaren 22tik 26ra. Google Mapsena hilaren 8an izango da, gazteleraz; eta Bloggerrena 22an eta Twiterrekoa abenduaren 13an, biak euskaraz. 11:00etan hasiko dira hiru ikastaro hauek. ■ M.O.

## Bigarren urtez udal tasak izoztea erabaki dute udalbatzan

Egoera ekonomikoa dela-eta, datorren urteko udal tasak bere horretan uztea erabaki du udalbatzak asteon. Alderdi guztiek aldeko botoa eman dute, eta PSE-EE abstenitu egin da. Sozialistek azaldu dutenez, zergak izoztearen alde daude, baina "diru sarrera gutxien duten iurretarrei zergak jaistea eta herritarrei zuzenean ukitzen ez dieten zergak igotzea aztertu beharko litzateke".

**Hiru aldaketa egin dituzte ordenantzetan; gainerakoa zegoenean utzi dute**

Ordenantza fiskaletan hiru aldaketa egin ditu udalak. Lehenengoa etxebitxebizitza hutsen gainekoa da. Orain arte, etxebizitza hutsak Eusko Jaurlaritzari alokatzeko uzteagatik % 65eko hobariak ematen zituen udalak, eta arau foralak % 50ean dauka muga jarrita. Portzentaia horretara bajatu dituzte hobariak.

2011n zerga berri bat egongo da. Saltokiak zabaltzerakoan ingurumen baimen bateratuagatik 2.000 euro ordaindu beharko dituzte iurretarrek. Horrez gainera, garaje komunitateetako zabor bilketaren zergei kotxe kopuruen araberako tarifak jarriko dizkiete. ■ A.U.

ZALDIBAR

## Kalean da Animalien gaineko ordenantza

Udalak animalien gaineko ordenantza onartu zuen 2008an, eta alegazio eta tramiteak igarota, ordenantza hori herritarrak sentsibilizatzeko erabiliko dute. Datorren urteari begira, kanpaina berriak zehazten dabiltza udal arduradunak.

Bi funtzio nagusi ditu arautegiak: alde batetik, animaliak babestu eta saltzeko arauak ezartzea, eta, bestetik, euren eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea. Udalaren helburua herritarrak kontzientziatzea da, "animaliek baino, eurek dutelako gerta daitekeenaren ardura".

**Txakurren jabeen artean poltsak banatzea dute ekintzen aukeren artean**

Herritarren kexek bultzatuta hasiko dituzte kanpainak. Kexak, parkeetan agertzen diren zikin eta gorozkien inguruan izan dira, batez ere. Norabide horretan, txakurren jabeen artean poltsak banatzea dute ekintzen aukeren artean. Kalean animaliak lotuta eroatea ere sustatu gura dute; batez ere, txakur arriskutsuak. ■ M.O.

ATXONDO

## Asteon hasi da Arrazolako etxe sozialetan izena emateko epea

Honezkero herritar ugari gerturatu da udaletxera Arrazolako apartamentu sozialetarako zozketan izena ematera. Martitzenean hasi zen alokairuko etxe horietan izena emateko epea, eta hile guztian zehar egongo da horretarako aukera. Logela bakarreko apartamentu bat, logela biko bi eta hiru logelako apartamentu bat gabonetarako atondu ta egongo dira.

Haur hezkuntzatik DBHra eskolan dabiltzan atxondarrentzako diru-laguntzak eskatzeko epea ere martitzenean hasi da. Horretarako 10.000 euro gorde ditu udalak eta hilaren amaierara arte egongo da eskaerak egiteko aukera. ■ A.U.

## Zabalik dago kamioiak herri erditik ez pasatzeko saihesbidea



Joan den barikuan zabaldu zuten gaztetxe ostetik Fuchosara doan saihesbidea. Orain arte egunean 60 kamioi eta 300-400 kotxe pasatzen ziren Apata erditik, eta trafiko hori saihesteko eraiki dute bidea. Uztailean hasi ziren lanak, eta abuztuan atsedena hartu eta gero udazkenean jarraitu dute. Lanek 157.000 euroko aurrekontua izan dute eta Espainiako Gobernuko tokiko inbertsioetarako diru-laguntzagaz egin dituzte. ■ A.U.

MALLABIA

## Lana eta familia uztartzeko zaintza zerbitzua martxan da

Learreta-Markina herri eskolako guraso elkarteak eta udalak lehen aldiz zaintza zerbitzua jarri dute martxan. Lana eta familia uztartzen laguntzea da ekimenaren helburua, batez ere emakumeei, Aitor Loiola alkatearen esanetan.

Umeak eskolara joateko 09:30ean dute ordua. Zaintza zerbitzu berria 07:30etik 09:30era eskainiko dute, eta arratsaldetan 16:00etatik 18:00ak bitartean.

Asmoa gurasoen aldetik etorri dela dio Loiolak, baina udalak oso ondo iritzi diola. "Guraso asko goiz joaten dira lanera, eta Ermura eroaten dituzte umeak aitita-amamengana, gero Mallabira ekartzeko". Zerbitzua lau umek erabili arren, 15 umerentzako lekua dago. Egunero edo egun solteetan 2-12 urtera arteko umeak eroan daitezke bertara. ■ J.G.

# Durangaldean labur

## Iurretako ortu ludikoetan izena emateko epea, hilaren 12a arte

Iurretako Udalak azaroaren 12ra arte luzatu du udal ortu ludikoetan izena emateko epea. Interesatuta dagoenak udal erregistroan eman dezake izena. Nekazaritza ekologikorako 75 metro karratuko 41 lursail atondu dituzte Iturburu auzoan: 12 langabeentzako gorde dituzte, beste 12 erretiratuentzako, 8 gizartebazterketa pairatzen dutenentzako, bat ezgaitu fisikoentzako, eta 8 gainerakoentzako.

## Kobikak Valladolideko pintxo lehiaketan parte hartuko du

Durangoko Kobika jatetxeak Valladolideko pintxo txapelketan parte hartuko du, azaroaren 8tik 10era. Euskal Herriko Txapelketan bosgarren postua eskuratu duen *bakailao ez nahasia, onddo sirimiriagaz perla-koloreko entsaladak lagunduta* pintxoa izango da lehiaketan aurkeztuko dutena. Iñigo Kortabitarteren pintxoek hainbat sari irabazi dituzte aurretik ere.



## Ipuin kontaketak Abadiñon, eguenero

Azaroko eguen denetan eta abenduaren 3an, lau eta zortzi urte arteko gazteentzako ipuin kontaketak egingo dituzte Abadiñoko udal mediatekan, 17:30ean hasita. Lur Korta (hilaren 11), Gorakada teatroa (18an), Maite Arrese (25ean) eta Pello Añorga (abenduaren 3an) etorriko dira.

**ABADIÑO**

# Obren kalteak konpontzeko eskea Aldundian

Gerediagako auzokideek txostena aurkeztu dute

Gerediagako bizilagunek txostena aurkeztu dute Aldundian (Interbiak) A8aren hirugarren erreiaren eraikuntzak eragindako kalteak konpontzeko eskatuz.

Dokumentuan obrak hasi zirenetik bizi dutena azaltzen dute. A8a zabaltzerakoan, hondakindegia zabaldu zuten Garain. Egunean ehunka kamioik zeharkatzen du auzoa. Obrek eragindako zikina eta zarata (egunez eta gauez) jasaten dutela salatu dute. Lebarion eraikitzen dabiltzan Euskotrenen kotxetokien lanek ere inguruan kaltea eragiten dutela diote Hamabi Harri auzo elkarteko kideek.

**Abadiñoko Udalaren "utzikeria" salatu du Hamabi Harri elkarteak**

Gerediagakoen eskaeretan, etxeen fatxadak garbitzea, bideko bisibilitatea hobetzea, kamioiek abiadura moteltzeko neurriak hartzea, bidegorriak bidea zeharkatzen duen lekuan semaforoa jartzea dira, besteak beste, puntuetako batzuk.

Hamabi Harrik Abadiñoko Udalaren "utzikeria" salatu du. "Gure aldetik txostena osatu eta Aldundira bidali dugu udalaren laguntza barik. Aldundiaren obra denez, ez dira gure egoeraz arduratu. Udalak ez du erantzunik eman, ez obrak hasi aurretik ez orain". ∎ I.E.



Gerediagako bizilagunak obrek eragiten dizkieten kalteez kexu dira.

## Probalekua umeendako zabaltzeko eskaria plenoan

Udal gobernuari neguan eta euria egiten duenetan Zelaietako probalekua umeek aterpean elkartzeko erabili ahal izatea bideratu dezala eskatzeko sinadurak biltzen dihardu hainbat gurasok. Halaxe jakin eragin zuen Igor Arkarazo ezker abertzaleko zinegotziak joan zen asteko plenoan.

Udalean azken urte bietan eskariari erantzunik ez badiote eman, "segurtasuna bermatzeko modurik ez dugulako topatu eta probalekua dagoeneko hainbat taldek entseguetarako erabiltzen duelako" izan dela erantzun zuen Navarro alkateak.

Erabiltzaileen "segurtasuna bermatu eta probalekuko espazioa ahalik ondoen aprobetxatzeko modua" bilatu dezatela eskatu dio ezker abertzaleak gobernu taldeari. ∎ I.E.

# Hirigintza ereduaz hausnartu eta iritzia emateko aukera

Errota eta Txanporta kultur etxeetan erakusketa, azaroaren 19ra arte

Hiria bizitzeko askotariko moduak udaleko hirigintza pentsatu eta diseinatzerakoan kontuan hartu ditzaten, "hirigintza ereduak birplanteatzeko asmoz" sortutako ekimenaren barruan ipini dituzte erakusketak Errota eta Txanporta kultur etxeetan bisitagai. Ume txikiak dituen gurasoak, elbarriak, emakumeak, etorkinak... bakoitzak modu baten bizi duen herrian ikusten dituzten alderdi txarrak (iluntasuna, irisgarritasunik eza...) zein onak (garbitasuna, lasaitasuna...) adierazi ahalko dituzte kultur etxeetan ikusgai ipini dituzten planoetan herritarrek.

**Hirigintzari dagokionez, ontzat zein txartzat jotzen dituzten guneak adierazi ahalko dituzte abadiñarrek**



Erakusketara gerturatu eta parte hartzeko gonbita egin zuten atzo.

"Arkitekturan normalean ez dira ikuspuntu horiek guztiak kontuan hartzen, normatibak oso fisikoak direlako", dio Hiria Kolektiboko Oihana Ruizek. Herria zelan "erabilgarri egin, zelan lortu jendeak espazio publikoa bere egitea" hausnartu eta adierazteko aukera da azaroaren 19ra artekoa. ∎ I.E.

**IZURTZA**

## Herritarrak plan orokorraren berridazketan parte hartzen

Herriko hirigintza zehazten duen plan orokorra berrikusteko ardura daukan enpresaren eta udalaren ordezkariek zein hainbat herritarrek hartu dute orainarteko herri-batzarretan parte: guztira, 35 lagun inguruk. Izurtzarrek herriaren etorkizuna diseinatzen duen planaren nondik norakoei buruz interes handia erakutsi eta ekarpen interesgarriak egin dituztelako pozik agertu dira udal arduradunak asteon.

Herri-batzarretan jasotako ekarpen horiek guztiak laburbildu ondoren, beste batzar birako deialdia egin dute: azaroaren 20an eta 27an herriko plazan izango dira hitzorduok. ∎ I.E.

**MAÑARIA**

## Internet eta informatika ezagutzak sakontzen

Informatika eta Interneten erabilerari buruzko oinarrizko ikastaroa eskainiko du, urtea amaitu arte, Urkiola landa garapena elkartearen eskutik udalak. Abendura arte, herriko KZGunean izango dira ikastaroaren saioak.

Parte-hartzaileei informatikari zein Interneten erabilerari buruzko oinarrizko baliabideak eskainiko dizkien hamar orduko ikastaroa da berbagai darabilguna, eta ordu biko mintegia ere izango dute izena ematen duten herritarrek aukeran. 94 620 36 11 telefonoan jaso daiteke informazio gehiago, eta bertan eman daiteke ikastaroan parte hartu ahal izateko izena ere. ∎ I.E.

goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik
clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
odontologia orokorra eta espezialitateak
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin
ardoak
iñaki
uribe
saltsan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

# BERBAZ >

# "Dirua irabaztea barik, proiektuei laguntzea da Fiare bankuaren helburua"

Banku etikoa elkartasuna lantzeko modu bat dela azaldu digu Juan Garibik; Fiare fundazioaren arduraduna da.

**Banku batean dihardu lanean Juan Garibik, banku berezi batean. Bestelako banku eredu bat landu gura duen Fiare fundazioan dabil beharrean; dirua elkartasunagaz lotutako proiektuetara bideratzen dute. Joan den astean pobrezia gainditzearen gaineko hitzaldi batean parte hartu zuen Garibik, baikor. Baikortasun hori ulertzen saiatzeko beragaz ipini dugu hitzordua.**

*Hitzaldian gure belaunaldiak pobrezia amaitzeko gaitasuna daukala nabarmendu zenuten. Zergatik?*
Lehenago pentsatzen zen munduan ez zegoela denontzako baliabiderik, eta horregatik existitzen dela pobrezia. Munduan gosea asetzeko behar den beste janari dagoela dakigu gaur egun; kontua da batzuek ez daukatela dirurik erosteko. Ez dago asmo politikorik hori onartzeko, baina banaketan dago arazoa.

"Zertan xahutzen dugu urrutiko sagarrak erosten aurrezten dugun dirua?"

*Ez dago borondate politikorik?*
Duela hogei urte *Iraultza Berdea* izenekoa hasi zen Afrikan eta Asian. Landetan produktu kimikoak erabiltzen hasi ziren produkzioa bikoizteko; bertakoek eurek jateko eta merkatu internazionalean sartzeko. Azkenean, guztiz kontrakoa gertatu da. Europara eta Estatu Batuetara saltzen dute eta produktuak eurei erosi behar dizkiete; menpekotasuna sortu da. Bertako ekoizleen bizimodua lagundu beharrean, eurek jateko barik 14.000 kilometrora bizi garenentzako ekoizten dute.

*Guk merkeago erosteko...*
Egia da urrutitik etorritako sagarrak erosten ditugula merkeagoak direlako. Baina hor tranpa bat dago; nik zertan gastatzen dut sagarretan aurrezten dudana? Nintendo DS bat erosten? Balira joaten oporretan? Asko gastatzeko ohitura hartu dugu, eta hemengo ekoizleei lagundu beharrean dirua benetan behar ez ditugun gauzetan gastatzen dugu.

*Zure ustez, orduan, kontsumo ohiturak aldatu egin beharko genituzke pobrezia amaitzeko. 'Pobrezia amaitzea' baina, oso kontzeptu potoloa da. Gure esku dago?*
Egia da pertsona bakar batek ezin duela pobrezia amaitu, baina hori ezin da aitzakia izan gure portaerak ez aldatzeko. Aukera asko daude egunerokotasunean; zentzuz kontsumitu, elkarlanean ibili... Benetan ez dago gure eskuetan, Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Funtsak eta AEBk botere handia daukate, baina ezin dugu ibili beti eurei errua botatzen, guk ezer egiten ez dugun bitartean. Guk gure bidea egin behar dugu, eta besteei bide horretatik joateko exijitu.



"Munduko Bankuak, AEBek... botere handia daukate, baina ezin diegu eurei pobreziaren errua bota eta gure jarrera aldatu barik bizi"

*Fiare banku etikoan zabiltza lanean. Zer da banku etiko bat?*
Banku bat da, eta jendeak libreta zabaldu dezake, banku batek ematen duen ziurtasunagaz. Diru hori modu berezian bideratzen dugu: bidezko merkataritzan, bazterkeriaren kontrako proiektuetan, hezkuntza eta enplegua sortzeko proiektuetan, energia berriztagarrietan, agroekologian... eragin positiboa daukaten gauzetan inbertitzen dugu. Gainera banku etikook ez dugu irabazteko asmorik. Banketxe gehienek, adibidez, ez dute gura izaten nekazaritza sektorean inbertitzea, baina guk bai, dirua irabaztea barik proiektuei laguntzea gura dugulako. Finantzatutako proiektuen gaineko informazio guztia publikatu egiten dugu, bezero denek jakiteko zertan inbertitzen dugun euren dirua. Orain dela bost urte zabaldu genuen bulegoa Bilbon, eta, bezeroak eta bazkideak kontatuta, 2.000 pertsona gara.

**Juan Garibi •**

- Fiare fundazioko garapenerako zuzendaria
- Durangon bizi da

"Bankuek ez dute nekazaritzan inbertitu gura izaten, Fiarek bai"

*Sare baten barruan zaudete, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Enpresen Sarean. Zelako sarea da hori?*
Mundu mailako mugimendu bat da, eta Euskal Herrian nahiko indar handia dauka. Hainbat alorretan beharrean dabilen jendea batzen gara; bidezko merkataritzan, ekonekazaritzan, birziklatze lanetan, baztertuta dauden pertsonei lana eskaintzen... Durangon bertan Ekorropa, Caritas eta Sartu daude, adibidez. Duintasunezko enplegua sortzen ahalegintzen gara, irabazteko asmo barik. Gaur egungo gizartearen ereduan ez dugu sinesten, eta eredu hori aldatzeko gogoak batzen gaitu. ■ A.Ugalde


Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21
Konfiantzaren balioa
pisoon
zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak
MATIENA Erref. 002-1136
156.263€ (26 milioi)
2 logelako pisu eguzkitsua, ganbararekin. Berogailua.
BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!
KIRIKIÑO Erref. 002-895
160.000€ (26,6 milioi)
3 logela. Orientazio ona. SUBENTZIONATUTAKO HIPOTEKA. 337euro/hileko (lehen 3 urteetan). KONTSULTATU.
DURANGO Erref. 002-1107
173.692€ (28,8 milioi)
Berriztatua. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Trastelekua.
SAN IGNACIO Erref. 002-870
192.323€ (32 milioi)
Eraikuntza berria. Beheko solairuak. 2 logela, 2 komun eta sukalde handia. Eguzkitsua. Estreinatzeko.
KALITATE-PREZIO PAREKAEZINA!
DURANGO Erref. 002-1140
216.000€ (35,9 milioi)
Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona.
BERRIA DIRUDI!
IPARRAGIRRE Erref. 002-1191
216.364€ (36 milioi)
80 m², 3 logela bikoitz, sukalde handia, egongela eta komuna. Eguzkitsua. Ganbara. AUKERA ASKOREKIN!
TABIRA Erref. 002-1121
234.394€ (39 milioi)
10 urte dituen etxebizitza. Egongela handia, sukaldea balkoiarekin, logela eta komuna. BERRIA DIRUDI!
SASIKOA Erref. 002-882
231.389€ (38,5 milioi)
Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua.
EZ GALDU AUKERA HAU!
SALTZEKO PREMIA!
DURANGO Erref. 002-831
270.455€ (45 milioi)
Landako zonaldean. 3 logela, komun bat eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
F.J.ZUMARRAGA Erref. 002-1150
276.465€ (46 milioi)
14 urteko aintzinatasuna duen duplexa. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran.
PLATERUEN PLAZA Erref. 002-719
294.495€ (49 milioi)
12 urteko etxebizitza. 120 m². 4 logela, 3 komun, 22 m²-ko egongela, garajea eta trastelekua. NEGOZIAGARRIA!
ZABALE Erref. 002-1190
309.521€ (51,5 milioi)
Pisu altua igogailuarekin. Eguzkitsua. Orientazio ona. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea balkoiarekin.
ETXEBIZITZA EGOKIA!
SAN IGNAZIO Erref. 002-1188
312.526€ (52 milioi)
14 urte dituen etxebizitza. 90 m². 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara eta garajea. AUKERA ONA!
DURANGO Erref. 002-783
318.536€ (53 milioi)
Pisu altua igogailuarekin. Orientazio ona. 3 logela, 2 komun eta egongela handia ikuspegiekin. Berriztatua. Garajea eta trastelekua.
ZATOZ IKUSTERA, GUSTATUKO ZAIZU!
SAN ROKE Erref. 002-1182
321.541€ (53,5 milioi)
Pisu altua igogailuarekin. 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komuna, egongela handia eta bainugela. Ganbara eta garaje itxia.
DURANGO Erref. 002-1176
330.000€ (54,9 milioi)
99 m². Pisu altua. Eguzkitsua. 8 urte dituen etxebizitza. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Garajea eta ganbara aukeran.
DURANGO Erref. 002-1149
348.587€ (58 milioi)
Beheko solairua 87m²-ko terrazarekin. 2 urte. Orientazio ona. 17 m²-ko garaje itxia. Egongela handia. BERRIA DIRUDI!
PLATERUEN PLAZA Erref. 002-1142
369.622€ (61,5milioi)
103 m²-ko pisu zabala. Hegoaldeko orientazioa. 3 logela bikoitz, 2 komun, sukaldea balkoi eta eskegitokiarekin. Garajea eta ganbara. PISU ZABALA!
MURUETA-TORRE Erref. 002-839
372.627€ (62 milioi)
8 urteko aintzinatasuna duen pisua. 3 logela doble, egongela handia, 2 komun eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
MURUETA-TORRE Erref. 002-891
390.657€ (65 milioi)
101 m², 4 logela bikoitzak, 2 komun egongela handia eta 27 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua.
ETXEBIZITZA HANDIA!
Konfiantzaren balioa
pisoon
.com
zure etxea saltzeko edo erosteko...
Zertifikatutako Bizkaiko lehen inmobiliaria sarea
ISO 9001
BUREAU VERITAS Certification

# IRITZIA >

## Gutunak

### 'dot' aldizkarian argitaratutakoei erantzunez

Ohar honen bitartez, Durango TBko 12 langileetako seik joan zen ostiralean Durangoko buzoietan banatu zuten 'dot Durangaldeko aldizkaria' berriaren lehenego zenbakian argitaratutako testuari erantzun nahi diogu.

Argitaratutako artikulua irakurtzean, harriturik geratu ginen guk inoiz esan gabekoak idatziz zelan erabili gaituzten ikusita. Argitaratu dutenez, "langile ohiek aurpegia eman nahi izan dute". Baieztapen hori faltsua da, orain arte guk ez baitugu pairaturiko injustizia salatu nahi izan.

Kontua da guri inork ez digula galdetu ezer komunikabide berri horretan artikulua argitaratzeko. Dagoeneko itxita dagoen Durango TBko langile ohi guztien izenean egin dute, ustez. Kaleratzeak eta gero, hitz egin genuen biltzeko aukeraz, baina ez dugu inoiz batzarrik egin.

'dot'-eko testuak zera dio itxiera egunari buruz: "Oso gaizki tratatu gintuzten… zaborra bagina bezala derrigortu gintuzten instalazioetatik ateratzera". Hori ez da egia. Vocentoko ordezkariak (eskualdeko telebistaren jabe den taldea) enpresaren itxiera jakinarazi zigun, eta oso zuzena eta egokia izan zen. Kaleratzearen ez bidezkotasuna onartu zuten eta langile bakoitzari zegokion diru-ordaina eman zioten.

Egia esan, Vocento etorri zenetik –lizentzia saldu eta gero–, langileen kontratuak erregulatu egin zituzten, soldatak aldatu ez bazituzten ere; negargarriak eurak. Egoera horretan, gazte mileuristen kopururaren gorakada arazo moduan aurkezten zuen telebistako eztabaida pairatu behar izan genuen Durango TBn, konpondu beharreko arduratzeko sintoma omen zena, gutako inork ez zuenean 1.000 euroko soldata gordinik jasotzen hilean.

Guk une batean ere bilatu ez dugun adierazpen gurutzatu hauekin amaitu nahi dugu idazki hau amaitzeko, uste baitugu komunikabidea ixtea zuzendaritzaren kudeaketa txar baten eta enpresaren eta taldearen arteko gatazkaren ondorio dela. Azpimarratu nahi dugun bakarra da telebista katea sortu zenetik lanbaldintzak txarrak izan direla,eta enpresaren zuzendaritzak denborarekin eta antzinatasunaren arabera diru-ordainak hobetzea hitz eman arren, promesa horiek ez zirela inoiz bete.

Amaitzeko, argi geratu dadila ez dugula inoren ondoan agertu nahi, jakin dakigulako beti ezkutatu digutela informazioa. Ziklo hau ixtea eta aurrera baikortasunez begiratzea baino ez dugu nahi. Gainera, gure esker ona agertu nahi diegu honelako une gogor batean euren laguntasuna eta sentimendua adierazi diguten eskualdeko pertsona guztiei.

Eneka Atutxa, David Hernández, Victor Hernández, Eztizen García, Lander Petralanda, Virginia Meléndez

### Urrian ere, espetxe politika beti bezain krudel

Urria joan zaigun honetan, beste behin ere, berriki atxilotuak eta torturatuak izan diren gazteak eta euren senide eta lagunak gogoratuz hasi behar dugu. Gure besarkadarik sentikorrena beraientzat. Madrilen, senideak jazarriak izan dira. Donostian, Igor Portu eta Mattin Sarasola gazte lesakarrek pairatutako torturak ikertzen dituen epaiketaren baitan, senide eta lagunak kolpatuak izan ziren.

Errealitate gordina. Errealitate mingotsa. Sufrimenduaren kate amaigabea. Azken asteburu honetan bertan, Curtisen dagoen Zigor Blanco euskal preso politikoa ikustera zihoan lagun batek istripua izan zuen Bizkaian. Urteko hamargarren istripua euskal preso politikoen senide eta lagunentzat. Bitartean, barroteen arteko egoerak bere horretan jarraitzen du. Gose greba Murtzian, galdutako aurrez aurrekoak, isolamendua, bakartzea... Gaixo larriak askatu gabe, Bizi Osorako Zigorraren aplikazioa...

Iheslarien kontrako kanpainak ere aurrera jarraitzen du. Urrian Joxe Mari Zalduari omenaldi eta agur hunkigarria eskaini zaio Ezkio Itsason. Italiak hiru gazte independentista Espainiaratu ditu Erromako Fiskalaren iritziaren aurka, eta Venezuelan dauden errefuxiatu politikoen kontrako presio mediatiko eta politikoa handitzen ari da.

Baina, giza eskubideak bete-betean urratzen dituzten gertaera hauen guztien gainetik, aurrera begira egoteko unea da. Aurrerapausuak emateko unea da. Horregatik, hurrengo aste eta egunetan publiko egingo ditugu euskal preso politikoen eskubideen defentsan euskal jendarte osoa inplikatuko duten ekimenak preso eta iheslarien senide eta lagunak batzen gaituen Etxerat elkartetik.

Krudelkerian oinarri duen espetxe politika honekin amaitu behar dugu. Hiltzen duen espetxe politika honekin guztion artean amaitu behar dugu. Euskal preso politikoen eskubideak behingoz errespetatuak izan behar dira. Sufrimenduarekin bukatu behar dugu. Bide berriak zabaltzen ari dira gure herrian, itxaropenaren atea zabalik dago, eta norabide horretan ezinbestekoa da gure senide eta lagun preso politikoen eskubideen errespetua.

Euskal jendarte osoak eman behar du bultzada senide eta lagunekin batera. Orotariko profesionalak eta beste milaka eta milaka herritar astinduko ditugu. Guztion artean, senide, lagun, profesional eta eragile ezberdinen arteko bultzadak lortuko baitu sufrimendua besterik ez dakarren espetxe politika hiltzailearekin amaitzea.

Bukatzeko, ongietorria eman nahi diogu Agustin Del Hierro "Gamba" elorriar presoari, azaroaren 3 an bere herrira bueltatu baita, sei urte eta erdi espainiar espetxe politika bere hezurretan bizi izan eta gero. Ongi etorri, Gamba, eta segi dezagun bakoitzak zerbait ipintzen, errepresaliatu guztiak dagozkien eskubideekin etxeratu arte.

Durangaldeko errepresaliatu politikoen senide eta lagunak

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
**Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org**
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

## Sei hankako mahaia



Mikel Basabe
**Aralar**

### Ziaboga

Berriz ere ari gara, Eusko Legebiltzarrean, aurrekontuen eztabaida egiten. Gobernu sozialistaren bigarrenak dira, eta badago, beraz, nora joan gura duten aztertzerik. Nik, hezkuntzari begiratuko diot.

Aurrekontuen testuan, gobernuaren teorian, nekez dago arazorik: euskara eta gaztelania, gure gazteek biak komunikatzeko beste jakitea bultzatu gura ei dute, eta ingelesa indartu. Nor, horren kontra? Gizarte kohesioa bilatu gura ei dute, hezkuntzaren bitartez, bazterketarik gerta ez dadin. Ederra gero.

**Iparraldeko ikastolek bezala, gobernu aldaketa beharko du euskarak hezkuntzan aurrera egiteko**

Aurrekontuen mamia, baina, ez dago teorian, praktikan baino. Eta horretan argi esaten digute: aurrekoa teoria hutsa besterik ez da. Zeren, benetan, praktikan, kontrakoa egiten dute-eta. 2010eko aurrekontuetan 4.000.000 euroko partida berri bat sartu zuten, eskola pribatuetako A ereduetako itunak beste ereduetako itunekin parekatzeko. Parekatu ez dutena da ereduen eraginkortasuna. Gauza jakina da A ereduak ez duela balio erkidego honetako hizkuntza ofizial biak jakiteko, eta gauza jakina da eskola publikoan baztergune bihurtzen ari dela. Baina lau milioi bideratu zituzten euren teoria ei dena betetzeko balio ez duen hizkuntza eredura.

Hori, iaz. Eta aurten? Bada, aurten, beste lau milioi gehitu dizkiete iazko lau milioiei. 8.000.000 euro A ereduko itunak parekatzeko. Parean ordainduko ei dituzte ereduak, hizkuntzak ikasteko balio zein ez, gizarte kohesiorako balio zein ez.

Iparraldeko ikastolek bezala, gobernu aldaketa beharko du euskarak hezkuntzan aurrera egiteko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2010eko azaroaren 5a - 9. urtea - 393 zk.
Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Eta honako udal guztiak:
ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

**Zuzendaria**: Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.
**Administrazioa:** Itziar Belar, Miren Abasolo.
**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
**Erredakzioa**: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
**Maketazioa**: Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Testu zuzentzailea**: Igor Elortza.
**Argazkilariak**: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KULTURA>

**ZINEMA>** ELKARRIZKETA

# “Saturraranen preso zeudenak omendu gura ditugu filmagaz”

Abenduan New York-eko Spanish Cinema Now jaialdian erakutsiko dute **Izarren Argia** pelikula; datozen bost egunetan, Durangoko zineman izango da ikusgai. Bizi izan zutenena eta guztiona den Saturrarango kartzelaren historia isilpetik ateratzera dator filma, produkzio arduradun **Asier Bilbao** durangarra izan duena



K.Aginako

***Zer moduz doaz emanaldiak?***
Euskal Herrian nahiko ondo, batez ere, Gipuzkon zein Nafarroan ere egin diren emanaldiekin oso pozik gaude. Madril, Bartzelona, Sevilla, Valentzia, Malaga, Zaragoza etabarretan ere eman dugu, eta hor promozio handia egiteko ahalmenik ez daukagunez, emaitza ez da hain ona izan. Kopia asko atera eta nahiko ondo banatu arren, igarri egin da promozio indartsu baten falta ikusle kopuruetan.

***Gaiagazko sentsibilitate berezia ote dago hemen?***
Sentsibilitate hori Estatu osoan espero genuen, nahiz eta egia den hemen, Saturraran hemendik ordu erdira egonda, normala ere baden jendeak gertuagoko sentitzea. Gaia uste dut oso unibertsala dela, eta gainera Saturrarango kartzelan preso egon zirenetariko gehienak ez ziren euskaldunak, asturiarrak ziren gehienak, eta Estatu osoko andreak egon ziren.

***Hainbeste denboroko lanaren ondoren, zer sentsazio eragin dizu ikusle moduan pelikulak?***
Ikusle moduan, proiektu baten barruan sartuta hainbeste denbora daramazunean ez da erraza izaten ikusle normala izatea: pelikula horren atzean dauden arazoak, poztasunak, lana eta denbora gaitza da ahazten. Gehienbat, inguruan daukazun jendearen erantzunaren zain egoten zara, eta, batez ere, lehenengoz ikusten duenean jendeak daukan erreakzioa gura izaten duzu ezagutu.

***Aldamenekoen komentarioak zelakoak izan dira orain arte?***
Orokorrean oso ondo hartu du jendeak, emozionatu egin ditu pelikulak. Emozionatzeko, baina, entretenitu egin behar zaitu pelikula batek derrigorrez, eta gauza biak lortzen direla uste dut; ikuslea pelikulan sartuta mantentzea lortzen da, eta kasu gehienetan emozionatu egin dira. Ikusleak pelikula jarraitzea, ulertzea eta beragaz emozionatzea lorpena da guretzat.

> “Ikusleak pelikula jarraitzea, ulertzea eta beragaz emozionatzea lorpena da guretzat”

***Hasieran zeneukaten helburua lortu duzuela pentsatzen duzu?***
Helburua Saturrarango kartzelan gertatutakoaren egia gizarteratu eta oroimen historikoa berreskuratzeko bidean gure aletxoa ipintzea genuen. Gure esparrua delako eta jende askorengana ailegatzeko aukera eskaintzen duelako, zinema hautatu dugu bitarteko.

***Ideia zelan sortu zen?***
Orain hiru urte inguru konturatu ginen gauza asko dakigula Argentina eta Txilen gertatu zenari buruz, esaterako, eta gure historiari buruz oso gutxi dakigula. Estalita eta isilduta egon da historiaren parte oso inportante bat. Ondarroa eta Mutrikuko jende askok ere ez daki Saturrarango kartzelaren berririk, eta hori azaleratu beharra zegoela ikusi genuen.

***Ikuspuntua du berezia pelikulak.***
Espainiako gerra frentearen eta gudarien ikuspuntutik kontatu izan da orain arte, eta guk emakumeen, amen eta ume lapurtuen ikuspuntua gura genuen eman. Han egon ziren 4.500dik gora emakumeri omenaldia egin gura izan diegu, seizazpi urtez kartzela hartan bizi izan zirenei ahotsa eman nahi izan diegu, euren bizipenak adierazi ditzaten. Hasierako ideia dokumental fikzionatu bat egitea zen, eta gero konturatu ginen pelikula egiteko eta istorioa gehiago zabaltzeko aukera ederra geneukala. Egiazko gertakarietan oinarritutako pelikula da azkenean osatu duguna.

***Zelakoa izan da sortze-prozesua?***
Bulegoan norbaitek kontatu zuen istorio batetik hasi ginen Saturrarango kartzelaren inguruan dokumentatzen. Dokumentazioa bildu eta han bizi izan zirenen testigantzak jasotzea izan ziren lehenengo pausuak. Bost lagun elkarrizketatu genituen; preso egondako lau emakume eta preso egondako emakume baten alaba. Pelikula kontestualizatu eta “ikustera zoazena benetan gertatutako istorio bat da, ez da asmatutakoa” esateko, euretariko batzuk agertzen dira filmaren hasieran. Hori da pelikularen oinarria; eurek kontatutakoa.

***Zelan bizi izan dute pelikularen prozesua emakume horiek?***
Urte gutxi pasatu dira, baina aldi berean eurentzako bizitza oso bat igaro da —90 urte inguru dituzte–, eta orain arte ez dira ausartu han gertatutako kontatzen. Beldurra, errudun sentimendua, lotsa izan dute Saturrarango euren esperientzia kontatzeko, eta pixkanaka joan dira zabaltzen. Oso eskertuta eta gustura daude proiektu honetan parte hartu ahal izan dutelako, eta hainbeste urteren ondoren gaia gizarteratzea lortu dugulako.

***Produkzio arduradun zaren aldetik, zer zailtasun topatu dituzu?***
Pelikula historikoa izanik, konplikazio handiena da dekoratua, jantziak, ile apaintzea... asko landu beharra. Zerotik sortu behar duzu dena. Oso film korala da, bestalde; inguruan pertsonaia oso inportanteak daude, erreparto zabala. Talde teknikoan 70 lagun eta errepartuan 25 aktore eta figurazio oso ugaria. Pelikula sinesgarria egitea lortu dugulako gaude oso pozik.

***Euskaraz da bertsio originala.***
Hainbatek kritikatu egin du zelan litekeen moja edo militar frankista batek euskaraz egitea pelikulan, baina inork ez du ezer esaten erromatar bat gazteleraz entzuten duenean zineman. Hizkuntzaren normalizazioan egiteko dagoenaren erakusle eta euskaragazko errespetu falta da nire ustez kritika hori. ■ I.E.

## “Hainbat bider ikusi arren, hunkitzen nauten uneak”



Pelikularen sorkuntza prozesu guztia oso barrutik bizi, eta filmeko sekuentzia eta planoak hainbat bider ikusi dituen arren, badaude, azaldu digunez, pelikula berriro ikusten duenetan Bilbao oraindik hunkitzen duten hiru une pelikulan: “hainbat bider ikusi arren, presoak *Cara al sol* kantatzen dabiltzan uneak, lagunaren lur-ematean Internazionala kantatzen hasten direnak, eta amaierako uneak asko emozionatzen naute”.

‘Izarren argia’ proiektuan buru-belarri sartu orduko Saturrarango kartzelako historia ez zuela ezagutzen kontatu digun Bilbaorentzat, “historia bera eta bertan egondako emakumeak ezagutzea” eta euren ahotik “ez negarrik egin; ez ahaztea da egin behar duzuena” entzutea dira proiektutik atera dituen ikasgairik gogoangarrienak.

GEURE DURANGALDEA



**Jon Ander Urkiaga,**
Kazetaritzan lizentziatua

## Histeria historikoa

*"Bat, bi, hiru, lau... ispiluen aurrean, oooooo..."*: beldur onomatopeikoa.

Bat, bi, hiru, lau... krisi ekonomikoa dela-eta kale gorrian dauden beharginak... oooooo.

Bat, bi, hiru, lau... euskal futbol taldeek partidu bakoitzeko jasotzen dituzten golak... oooooo.

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei edo gehiago Eusko Jaurlaritzak eta EITBko zuzendaritzak buru gainean biraka dituzten txoriak. Txio, txio, txio...

Urte batzuetatik hona, euskarazko telebista publikoa herren dagoela gutxik ukatuko dute. Baina, ez ETB3ren zelanbaiteko beharra zegoelako, kate berriarekin arazo denak konponduko zirelakoan euskararen eta gazteriaren izenean. Ez. Hori ahultasunak ezkutatu eta norbere burua zuritzeko nahia baino ez zen. Gainera, *zapping*a egiten dudan aldiro ere zalantza berbera izaten dut, zein da ETBSATen funtzioa? (A, bai! Diasporan bizi direnek pilota partidak ikustea!).

Horrez gain, azken hileotan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hedabide publikoak nire aititaren oilotegiaren antz ikaragarria hartu du: ETB1en audientziaren emaitza katastrofikoak (ka-tas-tro-fe), kazetariei irekitako espedienteak...

ETB telebista txapuzeroetan txapuzeroena bihurtu da bere merituz (bere merituz?). Trauskiletan trauskilena. Orain pare bat urte inguru, ETB3ren sorrera zerbait historikotzat aurkeztu ziguten, zerbait histerikotzat aurkeztu beharrean. Euskara hutsezko bigarren telebista publikoa. Baina, ez al litzateke hobe telebista kate dezente bat eta bakarra izatea, ganorabako bi baino? Batek jaten duen mahaian beti ez baitute bik jaten.

ETBk ez dakit, baina, euskarak duintasuna merezi du.

**ANTZERKIA>** EMANALDIA

# Txalo taldearen 'Ate-joka' antzerki obra, bihar, Errota kultur etxean

Azaroaren 6an, Traña-Matienako Errota kultur etxean emango dute 'Ate-joka' antzezlana

Bihar, 20:00etan hasita eskainiko du Txalo produkzioak taldeak *Ate-joka* umorezko antzezlana Abadiñoko Errota kultur etxean. Begoña Bilbao da lanaren zuzendaria, eta Iker Galarza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozer antzezle ezagunak dira protagonista. Bikotekideen arteko harremanak eta elkarbizitzan sortzen diren egoera komikoak ditu *Ate-joka* antzezlanak oinarri.

Biharko antzezlanari buruz antzezlanaren promozio-orrian esaten denez, "dakiguna da, oholtza gaineko hiru protagonistak zenbat eta okerrago dabiltzan, hobeto pasatuko dugula guk".

Komedia arin eta entretenigarri honegaz zapatu iluntzea igarotzeko aukera da biharko, azaroaren 6ko 20:00etarako, Traña-Matienako Errota kultur etxean eskaintzen digutena. ■ I.E.



Iker Galarza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar dira aktoreak.

**BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA>** IGORRE

kronika

Markel Onaindia

# Amuriza aurrera eta Abarkas zain



Ia 600 lagun batu ziren Igorreko pilotalekuan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako laugarren kanporaketa ikusteko. Miren Amuriza eta Eneko Abasolo "Abarkas" ziren eskualdeko ordezkari; eurekin aritu ziren kantuan Ortzi Garitano, Peio Ormazabal, Beñat Vidal eta Joanes Igeregi. Berriztarrak irabazi zuen saioa, eta horregaz batera finalaurrekoetarako sailkapena ere bai. Ederto moldatu zen, umea eduki gura duen amaren zein lanean hastear dagoen etorkinaren paperean, esaterako. Puntuazio altua jaso zuen: 446,5.

Arrigorriagako Peio Ormazabal gaztea izan zen saioko sorpresa, bigarren postuan geratuz. Bere atzetik Abarkas, beragandik espero zen guztia eman barik; berak ere hala aitortu zuen azken agurrean. Urduritasunagatik-edo, ez zen gustura ibili iurretarra. Dena dela, sailkatzeko aukera handiak dauzka; puntuazioan bederatzigarren dago une honetan, eta 13 bertsolari pasatuko dira finalaurrekoetara; aurreko txapelketako bost finalistagaz batera. Azken kanporaketan bost bertsolarik gainditu beharko lukete, beraz, Abarkas bidean geratzeko. Getxokoa izango da galbahea, datorren domekan, Durangaldeko hiru bertsolari tartean direla: Gorka Lazkano, Beñat Ugartetxea eta Eñaut Uruburu.

**ZINEMA>** EMANALDIA

# Pinochet diktadorearen kontrako epaiketaren kontakizuna dokumentalean

Azaroaren 11n, Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai, Juan Guzman epailearen lanaren inguruko *El Juez y el general*

Txilen, 1998an, Augusto Pinochet diktadorearen krimenak aztertzeko lana eman zioten Juan Guzman epailearen jarraipena egiten duen dokumentala da azaroaren 11n Elorrioko Iturri kultur etxean eskainiko dutena. Salvador Allenderen gobernuagaz amaitu eta herritar askoren heriotza eta desagertzea ekarri zuen estatu kolpea ospatu zuen epaileak kasua aztertzeari ekiten dionean aurretik zeuzkan ziurtasunak zelan galtzen dituen erakusten du filmak. Pinochet diktadorearen kontrako epaiketa prozesua erakusten du 2008an Elizabeth Farnsworth eta Patricio Lanfrancok zuzendu zuten lanak; eguenean, 19:30ean Iturri kultur etxean emango dutenak. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net



AZAROAK 5 22:00etan
ALICE & THE BLACK FEET
KMON SESSION
KONTZERTUA.Sarrera doan.
AZAROAK 6 22:00etan
THE SPARTEENS +
TWIST TXAPELKETA
KONTZERTUA.Sarrera: 8-10euro.
AZAROAK 11 20:00etan
AIORA ERRENTERIA (Zea Mays)
KANTUAREN KANTOIA
BERBALDI MUSIKATUA.Sarrera doan.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300



LA TEMPESTAD
Companhia do Chapitô
Azaroak 6 • 20:00etan
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA



45. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen
gerediaga elkartea

# Kultur ikaskuntza eragin, deneriko adierazpen artistikoak garatuz

Atarte kultur elkartea da. Arte mundutik sortu eta kultura ohiko modu tradizionaletatik harago ulertu daitekeela erakusten dihardute. Durangoko Azokan euren sormen laborategiko emaitza ikusiko dugu



Idurre Arrazola, Gotzone Tutor eta Rakel Terron Atarteren egoitza aurrean.

Adierazpen artistikoak –beti-koak zein berriak izan– ikaskuntza eta orientazioa. Hiru ardatz horiek dira Atartekoentzat pizgarri. Pertsonen garapena sormenaren bitartez bilatzen dute. Ikaskuntza eremuak zabaltzea ahalbidetzen dute, esaterako, elkarregandik ikasiz. Eta beste kultur eredu batzuk ere lekua izan dezaketela sinistuta, etengabe proposamen berriak sortzen dabiltza. Aurten, Gerediaga Elkartearekin batera, Durangoko Azokan aurkituko ditugu.

Orain dela lau urte artearen inguruan batu ziren lagun batzuen ibilbidea, gaur egun, Idurre Arrazolak, Gotzone Tutorrek eta Rakel Terronek jarraitzen dute. Arteak batzen zituen, eta sormena bultzatzeko nahiak urte hauetan makina bat proiektutan parte hartzea ekarri die. Eta, gehienetan, elkarlanean, adierazpen artistiko ugaritako lagun, erakunde eta taldeekin.

Ikaskuntza programak, performanceak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak, pertsonen partaidetza lantzeko ekintzak... egin dituzte. Ezagunenetako bat uda honetan ohiartzun handia izan duen 'Bizíletra, zuretzat da saria' irakurleen maratoi berezia. 30 bat herritan 3.000 lagun ibili da bizikleta gainean irakurtzen, eta bakoitzaren herriko liburutegirako puntuak batzen.

**Ipuin-trailerrak**

Irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak egiten dituzte. Erraza ez dela aitortzen dute. Baina sinisten dute bi irakurketa hizkuntza daudela; betikoa, tradizionala, eta teknologia berriek dakarten hizkuntza. Batetik besterako bidea landu nahi dute, eta irakurtzeko bi hizkuntza uztartzen saiatu. Hortik sortu da, adibidez, 'Makingsarea' proiektua.

Gazteak literatura eta narrazioa lantzeko ekimena da. Baina horretarako teknologia berriak eta irakurketa mota diferenteak bultzatzen dituzte. Literaturatik abiatuta zein euren istorio propioetatik abiatuta, gazteek komiki digital bat eta liburu baten ikus-entzunezko trailerra sortuko dute. Horretan dabiltza Durangoko, Zornotzako, Iurretako eta Eibarko liburutegietan. Joseba Sarrionaindiaren 'Estazioko begiradak' eta 'Inkuboa eta anderea' kontakizunen aurrerakina egiten dabiltza tailerretako partaideak. Emaitza Durangoko Azokako egunetan ezagutuko dugu.

'Makingsarea' ekimenean sortututako ipuin-trailerrak Azokan ikusi ahal izango dira

Cyber Body: gorputzera lotutako sentsoreen bidez musika sortzeko ekimena

**Cyber Body**

Bide berriak jorratzea gustoko dute Atartekoek. Eskuartean Cyber Body izeneko proiektua dute. Hainbat arte hizkuntza uztartu dituzte teknologia berriak baliatuz. Horretarako injineru talde baten, musikarien, informatikoen eta dantzarien laguntza izan dute. Emaitza: edonork gorputzera lotutako sentsoreen bidez ordenagailu programa baten laguntzarekin soinuak denbora errealean sortzea. Urrriaren erdialdera, Bilbon egin den Jet Lag Fest jardunaldietan erakutsi dute proiektua orain arte eman duena. Dena dela, proiektua bera gehiago landu eta garatzeko asmoa dute Atartekoek.

Durangoko Azokan, bestetik, Argizaiola saria emateko egiten den ekitaldia diseinatzen ere badabiltza. Oraindik ez du Gerediaga elkarteak ezagutzera eman aurtengo sarituaren izena. Azaroaren erdialdera Durangoko Azokaren aurkezpenean emango dute jakitera 2010eko Argizaiola Saria. Atartekoak, hala ere, sari-emate ekitaldia diseinatzen hasita daude. Erakutsi duten ikasteko gogotik abiatuta, ekitaldi berritzailea izango da, seguruenik, aurtengoa. Sormena bultzatzeko gogoa eta pertsonei egoera berriak bizitzea eragin nahia ez zaie falta.

Izenak ere badu izanetik. Atarte: ataria, artearen bidez ateak zabaltzen dituen tokia.

**www.sormenlaborategia.blogspot.com/**

www.durangokoazoka.com
www.gerediaga.com



# Jatetxe gida



## Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



## Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita.Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.




## Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



## Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.





## Jon Soloeta
## Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



## Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



## Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

**Hemen agertu gura badozu,**

**DEITU**

**94 621 79 02**

# DANBAKA >

# Runba, pop-rocka, 70eko hamarkadako rocka eta metal musika gaur Espaloian

**Danbakako IV. edizioaren bigarren saioan beste lau talde izango dira gaur Elgetako Espaloian, 22:30ean**

MAIALEN GONZALEZ › BERGARA
Aurtengo edizioa ireki zuten taldeen emanaldien ondoren, hurrengo lau parte-hartzaileen txanda heldu da. Oraingoan, El Trio Calavera oñatiarrak, musikari oñatiarrez eta donostiarrez osatutako Rock Privado taldea, Arrasateko Front Malabar eta Abadiñoko Ymotek izango dira protagonistak gaur, Elgetako Espaloia Antzokian, 22:30ean hasita.

Musika estilo ugari izango dira gaur Espaloiko taula gainean: El Trio Calavera taldearen eskutik, runba doinuak entzungai; pop-rock musika Rock Privado taldeak taularatuko du; rockarekin jarraituz, 70eko hamarkadako rock doinuak Front Malabar arrasatearrek eskainiko dituzte; eta Abadiñoko Ymotek taldearen eskutik, berriz, metal doinu gogorrak. Beraz, ingelesezko eta gaztelaniazko abestien bidez, askotariko musika entzungai bertaratu nahi dutenendako.

**SARRERAK, 3 ETA 5 EUROTAN**
Kontzertuetarako sarrerak Espaloian bertan egongo dira salgai. Gazte Kutxarekin 3 euroren truke eta bestela, 5 eurotan.

**KONTZERTUA**
Gaur, barikua, 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

› El Trio Calavera
› Rock Privado
› Front Malabar
› Ymotek



## EL TRIO CALAVERA | Oñati

Joan den apirilean elkartu ziren Luis (Poetas Muertos taldekoa), Ekaitz (Nos la Suda taldekoa) eta Beñat (Ez!) taldekoa gitarra hirukote bat sortzeko asmotan. Euren musika runba euskalduna dela esaten dieten arren, taldekideek runba merke moduan izendatu zuten; izan ere, abestien letrak Luisek idatziak dira eta hark ez daki euskaraz. Errealitateko egoerei eta maitasunari buruzko abestiak egiten dituzte, betiere gitarra oinarriak eta gitarra soloak errespetatuz.



## ROCK PRIVADO | Oñati-Donostia

German Uribe-Etxebarria (gitarra eta ahotsa), Adriana Besne (ahotsa), Juan Ignacio Manso (gitarra), Iñigo Arotzena (teklatua), Victor Gartzia (baxua) eta Andoni Regueiro (bateria) dira Rock Privado taldeko kideak. Pop-rock musika egiten dute eta bi disko dituzte kalean: En todo este tiempo (2008) eta Caras (2010). Taldeko abestiak (Germanek konposatutakoak) benetako istorioetan daude oinarrituta, entzuleari melodia gogoraerrazak eta errima sinpleak baino gehiago eskaini nahian.



## FRONT MALABAR | Arrasate

Rock power hirukotea 2009an sortu zen. Hauek dira taldekideak: Borja Sabas bilbotarra (gitarra eta ahotsa), Bachellors eta Porcelanea taldeetako partaide ohia; Josema Cabezas arrasatearra (bateria eta koruak), Malaña, Kumulo eta Carlos el Sucio taldeetako kide ohia; eta Aitor Angulo (baxua eta koruak), Mr. Dange taldeko kide ohia. Egindako kantu guztiak ingelesezkoak dira. Soinu berezia eta gogor samarra izan arren, ez dute melodia ahazten.



## YMOTEK | Abadiño

Abadiñoko metal taldea, 2006an sortua. Taldeak aldaketa batzuk izan eta gero hauek dira partaideak: David Villarubia Villa (ahotsa), Roberto Moisen Rober (gitarra), Javier Villar Javivi (bateria), Asier Otadui Zana (baxua) eta Ivan Esteban Randall (gitarra). 2008an Apathy izeneko lehen EPa kaleratu zuten. 2009an, Euskal Zarata Tour '09 delakoan eta Euskal Strong Festibalean izan ziren, Walls of Jericho, Hamlet eta Death Before Dishonor taldeekin oholtza partekatzen.

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HEDABIDE LAGUNTZAILEA
anboto
ANTOLATZAILEA
Goiena 10 URTE


# AMALURRA>



# Udazken koloretan ibiltzeko argazki lehiaketa eta irteera Urkiolan

**Udazkena gai hartuta, argazki rallya antolatu du Urkiolako Toki Alai Interpretazio zentroak domeka honetarako**

**Azaroaren 14an Urkiolatik Otxandiora irteera egingo dute, 'Ardoaren eta arrainaren ibilbidea' jarraituta**

## Domeka honetarako argazki lehiaketa antolatu dute Urkiolako Parke Naturalean, eta hurrengo domekan irteera Urkiolatik Otxandiora

Argazki kamera hartu eta udazkeneko kolore gorriak harrapatzera bat baino gehiago irtengo da egunotan. Horretarako Urkiola inguruek aukera ederra ematen dutela-eta, aurten zortzigarrenez, argazki rallya antolatu dute bertan. Domeka honetan, goizeko 10:00etan hasiko da lehiaketan izena emateko epea, eta 17:30 arte aurkeztu ahalko dira ateratako argazkiak.

Lehiaketan kamera analogikoagaz zein digitalagaz parte hartu daiteke, eta bi modalitateetan bina kategoria egongo dira: 17 urte bitartekoena bata, eta bestea 18 urtetik aurrerakoentzat izango dena. Modalitate bakoitzean dirutan ordainduko dituzte sariak.

Argazkiak egunean bertan ateratakoak izan behar dira. Argazki kamera analogikoa erabiliko dutenei bertan emango diete erabili beharreko karretea, eta digitala erabiliko dutenek memoria txartela hutsik daukatela erakutsi beharko dute.

### Hilaren 14an, irteera

Lehengo merkatariek Mañariatik Otxandiorako bidea edo alderantzizkoa egiteko sarri erabiltzen zuten GR 38 bidea. Kostaldetik arraina barnealdera garraiatzeko eta barnealdetik kostara ardoa eramateko ibiltzen ziren bide horretan. Horregatik deitu izan zaio bide horri "ardoaren eta arrainaren ibilbidea". Bide hartatik garraiatzen zituzten, geroago, Bizkaiko burdina eta Gaztelako artilea ere.

Osteratxoa egin eta historia duen bide horretan barrena murgiltzeko irteera antolatu dute orain Urkiolako Parke Naturalean zehar azaroaren 14rako. Ardoaren eta arrainaren ibilbidea Mañariatik Urkiolara eta Otxandiora doa, eta hilaren 14an bidearen zati bat egingo dute; Urkiolatik Otxandiora doan tartea.

Goizeko 10:00etan hasiko dute irteera. Urkiolako Santutegiaren aurrean, harriaren ondoan batuko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, bi ordu eta laurden iraungo du ibilaldiak, bederatzi kilometro ditu, eta erraz ibiltzeko modukoa da. Otxandiora heltzerakoan 12:45eko lineako autobusa hartuko dute Urkiolara bueltatzeko.

Irteeraran parte hartzeko pertsona kopurua mugatua izango da, eta Toki Alai interpretazio zentroan eman beharko da izena. Telefonoa honakoa da: 94 681 41 55. ∎ A.U.

KIROLAK >

# Kulturalak lehenengo postua izango du jokoan Laudioren aurka

Amorebietaren berdinketa aprobetxatuta, Laudiok eta Kulturalak aurrea hartu diote; Gasteizko taldea da orain lider, baina irabaziz gero Kulturala izango litzateke lehenengo



Durangoko Kulturalak hirugarren mailan golik gehien sartu duen taldea izaten jarraitzen du, Beasainekin batera: 20 gol. K. Aginako

Jokalari, zale, zuzendari, kazetari… denek bertatik bertara jarraitu, gozatu eta sufritu gura izaten duten partidu horietakoa da bihar Kulturalak eta Laudiok Tabiran jokatuko dutena. Oraindik ligaren herenera heldu barik gauden arren, kasualitateek aspaldi egin zuten behera sailkapenean, eta goian dabiltzanak, salbuespenak salbuespen, hantxe ibiliko dira hemendik aurrera ere. Laudiok lehen postua kendu zion Amorebietari joan zen asteburuan, eta Durangoko Kulturalak ere bizkarra erakusten dio. Beraz, lehenengo postu bietan daudenak lehiatuko dira bihar, eta bien artean puntu bateko aldea dagoenez, Durangoko taldea lider ipini daiteke.

> Azken hiru neurketetan ez dute golik jaso, ez Kulturalak ez Laudiok

> Kulturalak partidurik galdu gabe jarraitzen du hamargarren jardunaldian

Joan zen asteko harmailetako giroa kontuan hartuta, zaleek biharko zitara ez dutela hutsik egingo esatea ez da berokeria. Partiduak berez dituen osagaiez gainera, argi ikusi zen zaleak berea emateko prest daudela. Harmaileetara begiratzeak gustua ematen zuen: aulki gehienak beteta eta denak taldea bultzatzeko gogoz.

Partidua bera ez zen oso erakargarria izan. Muniozgurenek penaltiz sartutako gol bakarrak eman zion garaipena Kulturalari. Jokoaren pisua eraman zuenez, hiru puntuak merezitakoak dira, baina taldeak ez zuen ohiko argitasunagaz jokatu, batez ere, jokoa antolatzerako orduan. Epaileak ere ez zuen askorik lagundu; Zarautzek falta asko egin zituelako Kulturala gelditzeko, eta epaileak ez zituelako behar den moduan zigortu.

Asteburukoagaz Kulturalak hiru lehia daramatza golik jaso barik. Baina kontuz: Laudiok ere hutsean mantendu du bere atea azken hiru neurketetan. ■ J.D.

## Magunazelaiak marka berria du, 147 kiloko harria jasota

Markarik marka dabil Abadiño Herri Kirol Taldeko Urdax Magunazelaia harri-jasotzaile gaztea. Joan zen asteburuan, 13 urteko gazteak bere marka berria ezarri zuen 147 kiloko harria jaso zuenean. Horrela, sei kilotan hobetu du urri hasieran Oñatin ezarritako marka. Orain arte 13 urtegaz harririk pisutsuena jaso duen jasotzailea Haimar Irigoien errezildarra da, 150 kilogaz.

Bestalde, Abadiñoko Sokatira Taldeak lauko txapelketa hasiko du hilaren 13an. Arratzura talde bi eramango dituzte eta guztira hamar talde lehiatuko dira. ■ J.D.

## Becerra eta Conde irabazle maratoi erdian

Joan zen asteburuan XX. Durangaldeko Maratoi Erdia korritu zuten Urkiolan zehar, eta gizonetan Walter Becerra sestaoarrak irabazi zuen (1.16.32) eta emakumeetan Ana Conde gasteiztarrak (1.31.10). Gizonetan durangar bik osatu zuten podiuma: Aitor Uribesalgok (1.17.28) eta David Garciak (1.18.08). Emakumeetan Iraia Garcia zornotzarra geratu zen bigarren (1.37.55), eta Monica de la Rosa gasteiztarra hirugarren (1.40.13).

Bestalde, hamaika kilometroko lasterketa alternatiboa Luis de Esa legazpiarrak eta Eider Ares durangarrak irabazi zuten. ■ J.D.

# Arrakastatsua izan zen bigarren Saskibaloi Jaia

2.000 gaztetxotik gora batu ziren Landako Erakustazoka osoa erabili zuen jaialdian

Aurreikuspen guztiak bete zituen Bizkaiako Saskibaloi Federazioaren bidez Landako Erakustazokan ospatu zuten Saskibaloi Jaiak. 2.000 gaztetxotik gora batu zituzten, eta aipamen berezia merezi du gurasoek seme-alabekin batera jokatutako Bi Belaunaldi txapelketak. Oso harrera ona izan zuen, eta parte hartu zuten gaztetxo guztiek ezin zuten irribarrea ezkutatu, batez ere, aitari edo amari irabazten ziotenean. Fernando Romay jokalari ohia ere etorri zen. ■ J.D.

> Bi Belaunaldi izeneko txapelketak oso harrera ona izan zuen

> Bideoa: www.anboto.org



Giro ederra sortu zen Landako Gunean goizetik iluntzera.

## Domu Santu Torneoa, bihar, DimaGolf zelaian

Zapatuan, 10:00etatik aurrera, Domu Santu Torneoa jokatuko dute DimaGolfen Pitch&Putt modalitatean. Parte hartu gura duenak *info@dimagolf.com* helbidean eman dezake izena; parte hartzea 20 euro izango da (gosaria eta luntxa doan). Ohi duten legez, hiru kategoria prestatu dituzte, bakoitzaren handicaparen arabera.

Laster beste txapelketa bi ere jokatuko dituzte Dimatik Otxandiora bidean kokatutako DimaGolfen: Pernilaren eta Txakolinaren Torneoa azaroaren 27an eta Santo Tomas Torneoa abenduaren 19an. ■ J.D.

# Mikel Zabalzaren ibilerak ezagutzeko aukera Elorrion

Erdella mendizale taldeak antolatutako Mendi Astera Aitor Casado eta Eider Elizegi ere etorriko dira, astelehenetik barikura



Zabalzak, besteak beste, Karakorum-en irekitako bide berriak izango ditu berbagai. Erdella

Erdella mendizale taldeak argazki eta ikus-entzunezkoekin hornitutako bost hitzaldi antolatu ditu azaroaren 8tik 13ra, Mendi Astearen barruan. Horietako batean, Mikel Zabalza mendizale ezaguna etorriko da.

Lehenengo hiru saioak Iturri kultur etxean izango dira, 19:30etik aurrera. Astelehenean, Aitor Casadok bost urtean ateratako argazkien bitartez, Iratitik Ordesarako gailur eta zonalde entzutetsu eta ederretan murgilduko du ikuslea: Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia, Irati, Orreaga...

Martitzenean, Koldo Zubimendik eta Iker Iriondok Hegoameriketako Jatún Chácuan (Andeetan) egindako espedizioaren berri ematen duen ikus-entzunezkoa eskainiko dute. Gutxi ikertutako zonalde horretan bide berriak ireki zituzten.

> Eguenean Urdin Ugarte elorriarrak bere bidaia luzeko bizipenak kontatuko ditu

> Koldo Zubimendik eta Iker Iriondok Andeetan egindako espedizioaren berri emango dute

Eguaztenean Mikel Zabalza nafarrak Karakorumen (Pakistan, India eta Txinaren arteko mendizerran) egindako igoerak erakutsiko ditu proiekzio baten bitartez. Esaterako, Izenik Gabeko Dorrean edo Broad Peak Zentralean zabaldutako bide berriak hartuko ditu berbagai.

Egueneko ikus-entzunezkoaren bitartez, Urdin Ugarte elorriarrak, 20 hilean eta bizikletaz, mundua zehar bizitako abenturen berri emango du; guztira, 23.200 kilometro egin zituen. Saio hori Arriola kultur aretoan izango da.

Amaitzeko, barikuan, —berriro Iturrin— oraintsu Mendiko Literatura Saria jaso duen Eider Elizegui donostiarrak *Andeetako Gailurretan Alderrai* izeneko hitzaldia eskainiko du. Perun eta Bolivian ezagutu eta bizitakoak kontatuko ditu. ■ J.D.

## Adituarentxokoa

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea



### Mailari neurria hartzen

Gizonezkoen EBA liga da aurtengo denboraldiko nobedade nagusia gure eskualdean. Bai Zornotza Saskibaloi Taldea bai Tabirako Baqué liga honetan ari dira buru-belarri. Lehenengo bost partiduak jokatu direnean, balantze arin bat eta etorkizunean gertatu daitekeenaren analisi txiki bat egingo dugu gaurko honetan.

Zornotza S. T.ren ibilbidea irregularra izan da. Denetarik egin du: joko bikaina garatu eta aurkaria menpean izatetik, partidu berean, hutsaren hurrengoa ere bilakatu izan da; baita alderantziz ere.

Argi dagoena da talde honek edozeinekin lehiatzeko maila daukala, baina horretarako maila berriak exijitzen duen kontzentrazioa eta erregulartasuna behar du. Erregulartasun hori lortzen denean, edozein talderekin nor baino nor gehiago lehiatzeko gai den taldea bihurtuko da. Eta ez nik esaten dudalako...

Tabirako Baquéren ibilbidea antzekoa izan da orain arte. Lehenengo jardunaldian lortu zuten garaipen handiaren ondoren, hiru partidu galdu dituzte segidan, eta azkena irabazi egin dute Pielagosen aurka. Etxeko lehenengo garaipen hori lortzeak presioa asko arindu du taldean, eta berriro konfiantza ekarriko die. Konfiantza horrek, talde bezala daukaten indarrak eta momentuan daukaten maila fisiko bikainak oso arriskutsu bilakatzen ditu orain. Zalantza nagusia denboraldi osoan horrela iraungo duten da. Denok nahiko genuke hala izatea! Zorte on guztioi!

# Murgoitiok lasterketa bi irabazi ditu segidan

Karrantzan eta Muskizen nagusitu zen; Ruizek 23 urtez azpikoak irabazi zituen

Karrantzan hasi zen Euskadiko Txirrindulari Federakuntzaren espezialitate honetako egutegia, eta Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio abadiñarrak lasterketa hori eta Muskizkoa irabazi zituen joan zen asteburuan.

Gainera, nazioarteko mailarako puntuagarriak ziren bi proba horiek, eta Munduko Kopako hurrengo lasterketetan lortutako puntu poltsa horri (80 puntu) etekina ateratzen saiatuko da. Gainera, 23 urtez azpikoen artean ere Daniel Ruizek lasterketa biak irabazi zituen.

Bestalde, oraintsu Palmako belodromoan jokatutako Espainiako Txapelketan zilarra irabazi du Cespa Euskadi taldeko Martzel Elorriaga berriztarrak scratchean. Iban Leanizbarrutia elorriarrak Omnium-ean bosgarren amaitu zuen, eta Unai Elorriagaz bikoa osatuz Madisonean bigarren geratu zen. ■ J.D.

# Mendi materiala batuko du Alpinok merkaturako

Hilaren 9an eta 11n, saldu gura duenak materiala eroan dezake Alpinoren lokalera

Urtero legez, Alpino-Tabira mendizale taldeak mendiko materialen merkatu txikia antolatuko du, azaroaren 12an eta 13an, Alpinok Goienkalen duen egoitzan. Horretarako, ohi duten legez, materiala saldu gura dutenentzat egun bi ezarri dituzte materiala eraman dezaten. Azaroaren 9an eta 11n, 20:00etatik 21:00etara, Alpinoren egoitzara eroan ahalko da materiala: arropak, eskalatzeko gauzak, kanpin dendak, botak, liburuak, motxilak...

> Azaroaren 12an eta 13an egingo dute mendiko materialen merkatu txikia

Merkatua azaroaren 12ko ostiralean eta 13ko zapatuan egingo dute. Ostiralean 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Zapatuan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute.

Ondoren, saldu ez den materiala edo dirua jasotzeko, azaroaren 16an eta 18an, 20:00etatik 21:00etara, Alpino-Tabiraren egoitzatik igaro beharko da. ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

# Etxeko partiduetako puntuak lotzen jarraitu gura du DRTk

## Arripausuetan jokatutako partidu biak irabazi ditu Durango Ilarduyak orain arte; bolada onari eutsi gura diote etzi Vigoren aurkako lehian

Durango Ilarduyak Universidad de Vigo taldearen kontra jokatuko du domekan, 12:00etan, Arripausuetan. Aratz Gallastegiren taldeak etxeko bolada onari jarraipena eman gura dio. Izan ere, orain arte Durangon jokatutako partidua biak irabazi dituzte.

Ligako bigarren eta hirugarren jardunaldietan Barcelona Universitario (29-17) eta Uribealdea (27-7) menderatu zituzten, hurrenez hurren. Egia da talde horiek sailkapeneko azken postu bietan daudela, baina ohorezko B mailan ez dago partidu errazik. Universidad de Vigo taldea sailkapenean hirugarren dago, Getxo liderrarengandik hiru puntura, eta durangarrek aurtengo lehenengo erronka gogorra izango dute domekan.

> Vigoko taldea da orain arte etxean jaso duten areriorik indartsuena

Etxean irabazitakoa ezin du handik kanpora borobildu Durango Ilarduyak. Oviedoren eta Bartzelonaren kontrako biak galdu dituzte orain arte.

> Etxetik kanpora, aldiz, orain arteko partidu biak galdu dituzte

Bestalde, gaur, 20:00etan, beteranoen entrenamendua dago Arripausuetan. Ondoren, txokoan afaldu eta aurtengo egitasmoa azalduko dute. ■ J.D.



Domeka eguerdian jokatuko dute Vigoren aurka. Kepa Aginako

# Berasaluzek Titin III.a du azken koska onenen ligaxkan sartzeko

Pablo Berasaluzek Titin III.aren kontra jokatuko du, bihar, Iruñeko Labrit pilotalekuan, lau t'erdiko txapelketako final laurdenetako partidua. Irabaziz gero, lau onenen ligaxkan sartuko litzateke.

Joan zen asteburuan Arretxe II.a kanporatu zuen berriztarrak (22-17). Eibarko Astelenako kanporaketa erritmo bizian jokatu zuten, eta tanto onak eta huts handiak (Arretxek hiru falta egin zituen sakez) tartekatu zituzten. Lau t'erdiko estreinakoan Berasaluze VIII.ak 22-3 irabazi zion Olazabal aresoarrari.

> Aurreko kanporaketan 22-17 menderatu zuen Arretxe II.a

**Bereinkua finalerdien bila**

Bestalde, Mikel Bereinkuak XXV. Cafés Baqué Txapelketako finalerdietarako txartela izango du jokoan datorren egueztenean, 19:00etatik aurrera, Abadiñoko pilotalekuan. Kadete mailan Elezkano zaratamoztarra izango du aurrez aurre Bereinkuak. ■ J.D.

# Agenda

**FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
**Kulturala - Laudio**
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
**Iurretako - Fruiz**
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
**Abadiño - Padura B**
Zapatuan, 15:45ean, Astolan
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
**Elorrio - Berrio-Otxoa**
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

**ARETO FUTBOLA**
NAZIONAL A MAILA
**Sasikoa Durango - Zalatambor**
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

**SASKIBALOIA**
LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA
**Tabirako Baqué - Romoko Ezkorak**
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

**PILOTA**
XXIII. OLAZAR TXAPELKETA
*Lau t'erdian:*
**Dorronsoro (Araba) - Peñas (Nafarroa)**
*Binaka:*
**Arrese (Igorre) - Kastillo (Markina) / Beitia (Usansolo) - Ugarte (Usansolo)**
Azaroaren 11n, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan



# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

**Eguazteneko 19:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.**

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23

**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.**

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Abadiño.** Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trastelekua (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 712 105

**Abadiño.** Pisua salgai Abadiñon, Muntsaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagarria. Telefonoa: 667 882 338.

**Abadiño.** Etxea saltzen da Abadiñoko Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Denak kanpoalderuntz ematen du. Oso polita. Deitu eta ikusi! 615 007 216

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647 777 392

**Durango.** 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea - jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. 655 704 684

**Durango.** Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. Telefonoa: 607 715 353

**Durango.** Atiko zoragarria salgai Durangoko Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Telefonoa: 659 425 890

**Durango.** Etxea salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. Telefonoa: 699 409 959

**Durango.** Etxebizitza salgai Durangon. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro. Telefonoa: 696 255 083. 17:00etatik aurrera deitu.

**Durango.** Durango. 94m2ko etxea salgai, herriko gudarien plazan (osasun etxe zaharraren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekin. Prezioa: 343.000euro (57m). Tel.: 615-76 08 01.

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai Elorrion. Berritua, 124 m2, gas naturaleko berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro Telefonoa:685 734 825

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai, Elorrioko Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Tel.: 639 020 581

**Garai.** Oar-Erdikoa baserria, 6. Garaiko San Migel auzoan. Udaletxetik 150 metrora. Hegoaldera begira. 300 m2-ko solairua. 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua aurkeztuz gero, etxebizitza 2 egiteko aukera. 639 833 489

**Mallabia.** Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai, Mallabian. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Telefonoa: 655 702 647

